



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BATZAR NAGUSIEK EZ DABE ONARTU HONDARTZETARA DOAZAN ZERBITZUEN MAIZTASUNA HOBETZEA ETA ORDUTEGIA GAUEKO 10AK ARTE LUZATZEA

- **Bizkaiko Batzarretako Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako batzordeak ez dau onartu Gernikatik eskaintzen dan Bizkaibuseko anezka-zerbitzua Ispasterrera eta Eara zabaltzeko eskatzen eban EH Bilduren arauz besteko proposamena**

(Bilbon, 2021eko garagarrilaren 20an). Bizkaiko Batzar Nagusiek ez deusie Bizkaibusek hondartzetara eskaintzen dituan maiztasunak hobetzea eskatu beharko Aldundiari, ezta lurraldeko hareatzaren bategaz lotzen dabene zerbitzuen ordutegiak gaueko 10ak arte luzatzea be. Eskaera horreek EH Bilduren arauz besteko proposamen batean jasoten ziran, eta Busturialdeko eta Lea Artibaiko eskualdeetarako garraio publikoa hobetzeko eskaeraren bat be jasoten zan. Bizkaiko Batzarretan gehiengo daukien Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota dabe proposamena. Elkarrekin Bizkaia taldeek ekimenaren zati bat babestu dau eta Talde Berezia-PPB taldea abstenitu egin da.

Koalizino abertzalearen berbetan, Bizkaiko hainbat udalerritan garraio “arazo” bat dago hondartza egunetan, Bizkaibusek eskaintzen dauen zerbitzuak “maiztasun txikia eta oso ordutegi mugatuak” ditualako. Zigor Isuskizaren berbetan, “preminazkoa” da “erabagi bat hartzea”, hondartzen denporaldia bagilaren 1ean hasi zalako eta Lea Artibaiko eta Busturialdeko udal batzuk Aldundiagaz hartu emonetan jarri diralako hainbat hondartzarako soluzinoak bilatzeko, Lagan, Laidan edo Kanalán, besteak beste. Zerbitzua indartu ezker, “aparkalekuen arazo larriak arindu egingo litzatekez”.

EH Bilduren ekimenak, ekimena modu berezian bozkatzea eskatu dauen Elkarrekin Bizkaia babesa izan dau. Bertan, lehenik eta behin, hondartzetarako Bizkaibus zerbitzua “gitxienez, 22:00ak arte” luzatzea eskatzen zan. Bigarrenik, Bizkaibuseko maiztasunak oro har hondartzetara “jente gehien joaten dan orduetan” hobetzea eskatzen zan. Eta, azkenik, hirugarren puntu batean, Gernikatik Ispasterrera eta Eara eskaintzen dan Bizkaibuseko anezka-zerbitzua luzatzeko eskatzen zan.

Talde morea ez dago ados hondartzetatik itzultzeko zerbitzua orokorrean gaueko 10ak arte luzatzeko eskaereagaz, ez dabelako hori beharrezko ikusten linea guztietan. Emilio Lobato batzordekidea bat etorri da koalizino abertzaleagaz, eta esan dau uda heltzen danean arazoak “oso nabarmenak” dirala kostaldeko beste leku batzuetan. Bizkaiko hainbat kalatan zerbitzua indartzeak trafikoa, aparketearen arazoa eta erabiltzaile asko ibilgailu pribaduetan iristeak sortzen dauen kutsadurea “murriztu” egingo leuke.

Beste alde batetik, Foru Gobernu eusten dabene Batzarretako Taldeek esan dabe ez dagola zerbitzua indartzeko beharrik, autobusen ordutegiak “azterketa teknikoetan” oinarrituta ezarten diralako. Jose Alberto Alvarez Castejon Sozialistaren eretziz, egun askotan meteorologiaren menpe dago, eta hori aurreikustea “gatxa” da. Ikerketen arabera, barriz,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gaueko 9etatik aurrera hondartzetako garraio-eskaria “txikiagoa” da. Ispasterrera eta Earako zerbitzua hobetzeari jagokonez, udalerrri biek Bizkaiko antzeko beste udalerrri batzuen “pareko” ordutegiak ditue.

Batzuetan, “salbuespenen bat egon daiteke”, baina ordutegiak azterketa teknikoetan oinarrituta dagoz, Unai Lerma jeltzalearen berbetan. Ganera, Gobernuak kideakaz bat egin dau, eta esan dau eguneko azken orduetan zerbitzua zabaltzea ez dagola “justifikauta”; izan be, “zerbitzu gehienak gaueko bederatzia eta erdiak aldera amaitzen dira” eta “bidaiari gitxien dituenak izaten dira”.

Beste alde batetik, Talde Berezia-PPB taldeko batzordekideak (abstenidu egin da) uste dau pandemia agertzearen ondorioz jentek garraio publikotik “iges” egiten dauen garai batean eskaintza zabalagoa eskatzea “kontraesana” dala. Eduardo Andrade popularra kexau egin da udan Bizkaiko hondartzetan “aparkalekuak kentzen” aritzen diran udalak dirala eta.

ALDUNDIARI EGINDAKO GALDERAK

Beste alde batetik, Bizkaibuseen bizikleten erabileraren inguruan EH Bilduk egindako galdera bati erantzunez, Miguel Angel Gomez Viar Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuak bizikletagaz bidaiatzeko araudia argitu deutse taldeei. Aireporturako autobusetan, ibilgailu artikuluetan eta “ataripea” daukien uriarteko autobusetan eroan daiteke, baina, oro har, ezin da bizikleta plataformara igo, barruko espazioak hartzen ditualako, eta, ondorioz, garraioaren eukierea murrizten dauelako, eta, batez be, istripu bat gertatu ezkerro segurtasun bako elementu bihurtzen dalako.

Bestalde, ahozko beste erantzun-eske baten bidez, Talde Berezia-PPBk Basurtuko Auzo Elkartearen eskaera helarazo dau; Bilboko Autonomia kaleko 63. zenbakiko geltokian autobuserako markesina bat jartea eskatzen da, izan be, puntu horretan ibilgailu bereziak eta eskolako garraioa be gelditzen dira. Diputatuak azaldu dauenez, eskaerea, geralekua baimentzeko eskumena daukan Bilboko Udalarri egin behar jako. Puntu horretan, diputatuak azaldu dau ez dagola Bizkaibuseko bezeroentzako itzaroteko altzaririk, autobusek puntu horretan bidaiariak “itzi” baino ez dituelako egiten, eta “ez dalako inor autobusera igoten”.

Bilbo-Gasteiz lineako autobus-zerbitzuaren eskaintzan izan diran eta erabiltzaileek “behin eta berrin” salatu daberen “murrizketaren” ondorioz, Popularrek horretarako errazoiak eta arazoa konpontzeko hartu gura diran neurrien inguruan galdetu dabe. Bagilaren 28an, uda zala eta maiztasuna aldatu zanean, bidaiariak lurrean geratu ziran, diputatuak onartu dauenez, baina egoera hurrengo egunean konpondu zan. Diputatuak adierazo dauenez, lineak bere bidaiari “ia erdia” galdu dau aurtengo lehenengo seihilekoan, 2019ko epe beragaz alderatuta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LAS JUNTAS GENERALES RECHAZAN MEJORAR LAS FRECUENCIAS A LAS PLAYAS Y EXTENDER EL HORARIO HASTA LAS 10 DE LA NOCHE

- **La comisión de Transportes y Movilidad Sostenible de la Cámara vizcaína tumba una proposición no de norma de EH Bildu que pedía también que el servicio de lanzadera de Bizkaibus que se ofrece desde Gernika se ampliase hasta los municipios de Ispaster y Ea.**

(Bilbao, a 20 de julio de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia no tendrán que pedir a la Diputación mejorar las frecuencias de Bizkaibus a las playas, ni tampoco ampliar los horarios hasta las 10 de la noche de aquellos servicios que conectan con algún arenal del territorio. Estas peticiones se incluían en una proposición no de norma de EH Bildu que comprendía también una petición de mejora del transporte público para las comarcas de Busturialdea y Lea Artibai. La proposición ha sido desestimada por el rechazo de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, mayoría en el parlamento vizcaíno. Elkarrekin ha apoyado parte de la iniciativa y el grupo Mixto-PPB se ha abstenido.

Según la coalición abertzale, existe un “problema” de transporte los días de playa en algunos municipios vizcaínos, ya que el servicio que ofrece Bizkaibus tiene “poca frecuencia y horarios muy limitados”. Es “urgente”, según Zigor Isuskiza, “tomar una decisión” debido a que la temporada de playas se inició el 1 de junio y algunos ayuntamientos de Lea Artibai y Busturialdea se han puesto en contacto con la Diputación para que se establezcan soluciones en las comunicaciones con algunas playas, como en “Laga, Laida o Kanala”. Un reforzamiento del servicio permitiría “paliar los graves problemas de aparcamientos” que existen en estos arenales.

La iniciativa de EH Bildu ha contado con el apoyo de Elkarrekin Bizkaia que ha solicitado poder votar la iniciativa de forma separada. En la misma, se pedía, en un primer punto, que el servicio de Bizkaibus a las playas se prolongase “como mínimo, hasta las 22:00 horas”. En segundo lugar, se pedía que se mejorasen las frecuencias de Bizkaibus con carácter general “en las horas de mayor afluencia” a las playas. Y, por último, en un tercer punto, se solicitaba que se ampliara el servicio de lanzadera de Bizkaibus que se ofrece desde Gernika hasta los municipios de Ispaster y Ea.

El grupo morado ha mostrado su desacuerdo en que se pida que se extienda el servicio de vuelta de las playas de forma general hasta las 10 de la noche, ya que no lo ven necesario en todas las líneas. Su juntero Emilio Lobato coincide con la coalición abertzale, en cambio, en que los problemas son “muy evidentes” cuando llega la época estival en muchos puntos del litoral. El reforzamiento del servicio en algunas calas vizcaínas “reduciría” el tráfico, la problemática del estacionamiento y la contaminación que produce la llegada masiva de usuarios y usuarias en vehículos privados.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral han defendido que no existe necesidad de reforzar el servicio, ya que los horarios de los autobuses se fijan “en base a estudios técnicos” de demanda. Para el socialista José Alberto Álvarez Castejón, ésta depende, en muchas jornadas y en municipios costeros, de la meteorología y esto es “difícil” de prever. Para justificar su negativa, ha mantenido que los datos reflejan que a partir de las 9 de la noche la demanda de transporte en los arenales es “menor”. En cuanto a la mejora del servicio para Ispaster y Ea, ambos municipios cuentan con horarios “similares” a otros municipios vizcaínos de parecido tamaño.

En algunas ocasiones “puede haber alguna excepción” pero los horarios están basados en estudios técnicos, ha repetido también el jeltzale Unai Lerma, quien considera que el servicio vigente es “adecuado”. Además, coincide con sus socios de gobierno en que la ampliación del servicio durante las últimas horas “no está justificado”, ya que “la mayoría” de los servicios finalizan “hacia las nueve y media de la noche” y son “los que menos viajeros tienen”.

Por su parte, el apoderado del grupo Mixto-PPB, que se ha abstenido, ha destacado la “contradicción” que ha supuesto la irrupción de la pandemia y el hecho de que se pida más oferta cuando se vive una época en donde la gente “huye” del transporte público para evitar contagios. El popular Eduardo Andrade se ha quejado de los ayuntamientos que se dedican a “eliminar aparcamientos” durante la época estival en los arenales vizcaínos.

PREGUNTAS A LA DIPUTACIÓN

Por otro lado, en respuesta a una pregunta de EH Bildu sobre el uso de las bicicletas en Bizkaibus, el diputado foral de Transportes y Movilidad Sostenible, Miguel Ángel Gómez Viar, ha aclarado a los grupos la normativa existente para viajar con bicicleta. Es posible hacerlo en los autobuses que van al aeropuerto, o en vehículos articulados, siempre con excepciones, y en buses interurbanos que dispongan de “portamaleta”, aunque, con carácter general, no es posible subir la bicicleta a la plataforma por invadir espacios interiores lo que merma la capacidad del transporte, y sobre todo, porque se convierte en un elemento de inseguridad en caso de accidente.

Por su parte, a través de otra pregunta oral, el grupo Mixto-PPB ha trasladado la petición de la Asociación Vecinal de Basurto que viene reclamando la instalación de una marquesina de autobús en la parada de la calle Autonomía número 63 de Bilbao, punto en donde se detienen también vehículos especiales y transporte escolar. El diputado ha explicado que la solicitud debe hacerse al ayuntamiento de Bilbao que es competente para autorizar dicha parada. En ese punto, el diputado ha justificado la inexistencia de mobiliario de espera para clientes de Bizkaibus, porque los autobuses forales solo “dejan” viajeros en ese punto, y “no se realizan subidas”.

Ante la “problemática” surgida por el “recorte” en la prestación del servicio de transporte en autobús en la línea Bilbao-Vitoria, denunciada “reiteradamente” por sus usuarios, los populares han preguntado por los motivos y las medidas que se piensan adoptar para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

solucionar esta problemática. El 28 de junio, con el cambio de las frecuencias por la época estival, hubo viajeros que se quedaron en tierra, ha admitido el diputado, aunque la situación se solucionó al día siguiente. El diputado ha señalado que esta línea ha perdido “casi la mitad” de sus viajes en el primer semestre de este año, en comparación con el mismo periodo de 2019.